

Bi urte t' erdi

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' •

[IDAZLEA]

A hobatez aitortzen dute denek: datorren urte t'erdian hauteskunderik egongo ez denez, oraintxe da une egokia egoeraz eta irtenbideez solastatzeko.

Zuzendaritza politiko eta sindikalei dagozkien erabaki zehatzei buruz diskrezioa beharrezkoa izanik ere, ideia orokorren alorrean garbi hitz egin behar dugu organigrama horietan ez gaudenok.

Zerk geldotzen eta galgatzten ote du Ezker Abertzalearen aurrerakada? Bada garaia honetaz argiro jarduteko. Batera Ezker Abertzalearen barruan eta Mogimendu Abertzalean bere osan gogoan hartzeko.

Ezker Abertzaleak sekulako ahalegina egin du azkeneko hiru hamarkada hauetan gure nazio-projektua aurrera ateratzen; egoera errotik aldatu arte. Hemeroteke apur bat egitea aski.

Nork izan ditu hemen hilak, presoak, deserituak, torturatuak, deportatuak, gose-grebalari miresgarriak, sustengu eta amnistia batzordeak, eta militante soilak ehunka eta milaka, lan isil eta eskergabe lanean ari? Ezker Abertzalea izan ez bada, nork?

Nekez uka daiteke hau. Azkeneko urte hauetan Ezker Abertzaleari dago-kio sufrimenduen eta zigorren koroa.

Eta, hala ere, nola erantzun du gizar-teak?

Hauteskundeak ez dira Azkeneko Egia. Badakigu. Baina zerbait adierazten dutela ezin zalantzan jar.

Hots, Ezker Abertzaleko atal ez diren beste partidu batzuk (abertzale zein espainolista) gora joan dira. Gora joan da bereziki espainiar erdi-fasizisten partidua. Gu eutsian ozta-ozta.

Zein da honen gakoa? Izan dezagun ausardia aurrez aurre egoera begiratzeko.

Oinarri oinarrian, ene ustez, Hego Euskal Herrian gero eta espainiarrago gara, eta Iparraldean gero eta frantse-sago. Asimilazioaren prozesua aurrera doala agiri da. Prentsa anti-abertzalearen indarra kontutan hartu besterik ez da behar. *Diario de Navarra, Correo, Diario Vasco, Sud-Ouest*, nagusi. Irrati eta telebista kateez, zer esango? Zer mezu hedatzen dute?

Politikaren aldetik fenomeno bera dugu begi aurrean. Taktikeria merke-

en zerbitzutan, herrikidetasun *patentea* eman diegu urte hauetan gure herriaren kontrako alderdiei; eta orain sekula baino indartsuago daude, gu osoki baztertzera ere deliberatuak!

Dugun egoera politiko-kulturalean, jende askok (uste eta nahi genukeen baino gehiagok) aisago ulertzen du *sano-regionalismo* delakoa, gure jarrera abertzaleak baino. Projektua abertzalea, aitor dezagun, jende askori gaur ez zaio interesgarri iruditzen.

Gutako batzuen leloari jarraituz, «*se sienten cómodos en España... e incómodos con nosotros*».

Zergatik? Ausarki azter dezagun. Batetik *projektua bera* gerta dakieke eragozle. Eta bestetik *borroka-bidea*.

Projektua agian?

Ezker Abertzaleak lau puntutara bildu izan du bere helburu politikoa: Euskal Herri Askatua, Sozialista, Batua, Euskalduna. Hauetako zeinek uxatzen du bada jendea?

1-Euskalduntasunak ote? Ezerk ez du gaur jende gehiago erakartzen euskararen aldeko ospakizunek eta ekinbideek baino. Euskal elebakartasunaz Sanz mintzo da, eta ez beste inor. Euskaldun elebidunez (edo eleanitzez) osatutako Euskal Herri berriak (Suediaren edo Txekiaren bidetik) erakarri egiten du belaun berria.

2-Euskal Herri Batuak, berriz, noren gibelatzaile ote? Mamitzen hasia den Europa berrian (Hendaiako mugaren desagerpena sinbolo argitsu) Estatuek ezarritakoak dira ahuldu. Baina Ipar eta Hegoaldeko euskal herritarrok, adibidez, elkargandik hurbilago egongo gara hemendik goiti. Nori zaio hau gaitzi?

3-Euskal Herri Askatuak ote? Mota askotako arrazoiek bultzatuta, askatasun politikorik gabe jai dauka gure herriak. Eta tarte hauetan argi eta garbi utzi dute hau PSOEn eta PPren jokabideek. Edozer egiteko, eta herri

gisa ezer lortuko badugu, Askatasuna behar du Euskal Herriak.

Gure gainean dauden bi Estatuak oraindik oso indartsu egon arren, ez dute dagoeneko inolako mistikarik

sortzen gure herrian. Estatu monolitikoen eta ideologiaren krisiaren ondorioz, nazioa irten da garaile.

4-Euskal Herri sozialistak bazterrak uzkuratzen ote?

Helburu ederra sozialismoarena, dudarik gabe. Jatorriz eta xedez erakargarria oso. Eta gaur ere, gizar-tea justiziaren gainean eraikiko bada, funtsezko helburu.

Baina sozialismoa krisian dagoela azpi-

marratu beharrik ez dago. Sobietar blokearen porrot historikoa hor agertu da. Eta beragandik garbiki desmarkatu gabe, Ezker Abertzaleak tope egiten du, eta egingo. Hau aitortzea «burgeskaria dela», eta «eutsi» errepikatuz, ez goaz inora. Honetan ikusten dut nik Ezker Abertzalearen freinuetako bat. Eta, ondorioz, abertzaletasun osoarena.

Baina Ezkerraren ideologiaren krisian ere, kapitalismoak zapaltzen dituen langileria eta herriak, ezin umezurtz utzi. Sindikalismo abertzalearen gotorketan ikusten du nik irtenbidea. ELA-LAB elkartzaren bidetik, preseski.

Borroka-bidea oztopo?

Hemen ere, atzerriko nazio-mogimenduen gorabeheren argitan, ondorio bat nabarmen: herri zapalduak normalean ez dutela beren nazio-askatasuna borroka armaturik gabe lortu.

Baina beti hori? Nolako borroka armatu ingurune historikoetan oratua?

Mende honetan, gure gaztaroan, Hirugarren Munduko deskolonizazioaren olatua gertatu zen; eta aurrekoan Europarena (Otomandar Inperioa, Austria-Hungaria, Errusia zarista). Herri askok eta askok olatu horiek baliatuz lortu zuten beren nazio-askapena. Guk ez.

Benetako gerlak gertatu ziren. Bate-re ez kale-borrokaren maila edo kutsukoak. Aljeriako gerlan milioi bat aljeriar hil ziren. Vietnamgoan, bikoitza omen. Haiek ez ziren *txerto* itxurako istilu apur xumeak izan, sarraski izugarriak baizik. Oraingo Txetxenian edo Kosovon gertatzen ari direnen tankera-koak.

Bidenabar, zenbat gorputzen gainean eraiki zen frankismoa?

Bidezkoa al da, gaurko giro eta ingurunean, eta Euskal Herri honetan, horrelako gerla oso eta orokorra planteatzea? Atsegin izan zein atsekabe, Paris-ko eta Madrileko gobernuak oso sendo dauden mementu honetan, bidezkoa ote?

Baina agian, nork daki, halako batez posible izango da. Ghanak bere aukera izan zuen. Eta oraintxe, gure begien aurrean, izan dute berena herri kaukasikoek, baltikoek eta balkanikoek. Nork somatuko ote hori orain dela 30 urte?

Madrileren harrokeria mingarria ikusita, konprenigarria da gazte askoren etsipena, eta hemendik edo handik lehertu beharra. Baina gauzak diren bezala ikusi behar dira. Ez gaude frankismoaren hilaginean.

Kale-borroka eta oso noizpehinkako atentatuek, gure arteko batasuna hausten dute, gure indarra ahultzen, eta etsaiarena gotortzen. Aitor dezagun deplauki. Benetako txertoak dira, eraso nahi diren Estatu biziak.

ETAk badaki, eta garbi adierazi du: Autodeterminazioaren prozesua bideratzeko lehenengo urratsak ematen hasiz gero, prest dagoela suetena berriro emateko.

Hots, zein abertzalek egin diezaioke muzin Autodeterminazioaren prozesuaren zabalkundeari? Galdera honek erantzun argia behar du, ekintzaz oratua.

Gaur eta hemen (gerokoa gerokoek erabakiko dute) suetena berrezarri, Lizarra-Garazi eta Udalbiltza berrindartu; eta abertzaleon arteko ekintza batasuna, nola edo hala, eta edozeren ginetik, sendotu. Eta Madril eta Paris-eko mogitzen hasia lortu.

Horra hor bide bakarra, nire uste apalaz.

Berrero ere: Lizarra-Garazi, ala hil.

...hemeroteke

ZABALIK

Legez eta egitez egitez legez

[XABIER GURRUTXAGA]

Urak hagitz nahasirik datoz Nafarroan azken egunotan. Berrero ere batere kulparik gabe,

euskara zurrunbiloaren erdi-erdian jarri dute eta, horrelakoe-tan gertatzen den bezala, kaltetua hizkuntza hori eta gizar-tea izango dira.(...)

Duela 14 urte Nafarroako Parlamentuan onartu zen euskararen legea ez zen, hain zuzen, euskaltzaleen nahikundearen arabera

egin; bai ordea PSN eta UPN alderdien gogo eta esanetara. Igaro diren 14 urte hauetan Nafarroako euskaltzaleek lege horrek zituen muga sakonak nabarmen utzi dituzte agerian, begiratu nahi duen orok ikus ditzan. Nonbaiten euskararen baliokulturala eta soziala azpimarratu baldin ba-

da gizarte bat egitura-tzeko orduan, leku hori Nafarroa izan da. Lurralde honetan, beste batzuetan ez bezala, euskarak defentsa askoz ere indartsuagoak ditu gizar-tean, politikan edo legeetan baino. Urteotan egindako lanaren fruituak legeetara eramanez nahi zirenean, Oinarriak platafor-

maren bidez, indarrean dagoen legea erreformatzeko asmoz, justu orduantxe datozkigu Miguel Sanz eta kasu honetan bere akolito bihurtu den Juan Jose Lizarbe kontraerreforma iragarri. Dinamika honek konfrontazioa besterik ez dakar, eta seguraski kontraerreformistek horixe bila-

tzen dute beren ekimenarekin: alde batetik, erreforma ahalmena neutralizatu eta, bestetik, nafarren artean euskara dela- eta zatiketa eta enfrontamendua bultzatu. Zerbaiten beharra badu gaur euskarak Euskal Herri osoan, zerbait hori bakea da bere inguruan. Joka dezagun tentuz.